

## Janamari Malharin

Mattin LARZABAL

Hamabi urteko leialtasuna erakutsi du Janamari Malharinek Gure Irratiarentzat, 89-tik eta bi mila bateko apirilaren bia arte. Hain zuzen, apirilaren biko egun hori astelehena da. Goizeko bederatzia eta laurden dira, irratiko animatzaileak telefonoz deitzen du Janamari Itsasu Maldargira. Ordukotzat gure berriketariak idatzirik garbian emanak ditu lerrokatuko dituen berriak.

Gure Irratiko estudioan animatzaileak hitza emaiten dio eta Janamari hasten da: "Jainkoak dautzuetela egun on. entzuleak eta Itsasuarrak!". Hortik harat berriak jiten dira, sentroki emanak bata bestearen ondotik. Berri onak eta txarrak.

Hain zuzen astelehen horretan iragaiten dira Arate Xahitoko Bernadet Pokorena, berrogeita bi urteko emaztearen eta laster munduratu beharra zuen haurraren ehortzetak.. Aipamen doluminatsua eskaintzen du gure Janamarik, nola ez, baina berehala sortze bat aipatzen du, "Gerezi xokoan" mundu honetara jin berria baita Elaia Matxikot.

Ondotik, oroit erazten du bezperan zela adorazioaren eguna Itsasuko elizan, euskal kantu ederrak entzun direla meza nagusian. Ezin ditu aipatu gabe utzi aitzineko ostiralean Txistulari ostatuan ari izan direla bertsutan Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso, bertsulari gipuzkoarrak Ernest Alkat Armendariztarrarekin.

Gure Irratiko animatzaileak beharri batetik baizik ez ditu Itsasuko berriak segitzen. Gelara jin zaion lankideak xehetasun bat presatuki galdatzen dio eta berdin eskura emaiten frantses hutsean idatzia den abisu bat, animatzaileak beharko duena, Itsasuko berrietarik

landa kasik berehala mikrotik eman, itzulpenaren egiteko kasik denborarik gabe.

Gora behera horietan dabilala gure animatzailea, Itsasuko berrietara dator arranguraño batekin : "zertan da gure Janamari ?" Eta gure Janamari aitzina ari, mintzatzeko moldean deus aldaketarik erakutsi gabe : "eta orai nere buruaz mintzatu behar dut. Ohartu zirezten bezala, ene hitzak nekez heldu dira, berrien paperaren irakurtzeko enegu handiak baititut. Beraz gaur azken aldia da entzuten nauzuela. Baina ez kexa. Itsasuko berriak entzunen dituzue oraino Gure Irratian. Pierra Lazkarai herritarrak hartuko du ene segida astelehen goizetan."

Erranaldi horretan agertzen zaigu Janamari guztia. Jendeak eta denborak iragaiten dira, baina euskararen zerbitzuak dirau beti. Janamari sail horretan lekukoa eramandu, urtez eta urtez, sekulan utzi gabe. Astelehen guztiez tenoreko prest zen berriak emaiteko, izaitzekoz ere Gure Irratiak dio huts egin, bezperako ortziek Baiguran duen errepikagailua ixildua ziotelarik.

Eskualtzaletasunaren langile metronomoa zen gure Janamari. Beti hor, beti prest, gauzak tenoreko eginak, oihurik, eztulik edo nigarririk sekulan ez. Euskarak eguneroko zerbitzu hori hartze duela pentsatzen baitzuen, eta ez bakarrik pentsatzen obratzen ere.

Geroztik, Piarres Lazkarai dugu Itsasuko berri emaille leiala, eta Herriko Etxeak urte oroz Gure Irratia laguntzen du, hor ere beste anitz herri handiagok baino laguntza joriagoa ekarriz.

Heldu den abendoan hogeita hiru urte beteko ditu Gure Irratiak. Errealitateari barnetik so egiten badiogu, ohartuko gara laster, Janamari bezalako langile euskaltzale ixil eta jarraikiei esker bizi eta garatzen dela euskara hemen, Gure Irratiak kolore desberdineko doinuak eskaintzen dituelarik, Baiona/Angelu/Miarritzeko euskara hiritar berde horren ondoan, herrietako berriketarienak nafar/Lapurteraren ohitura azkar atxikitzen du.

Ea jaikitzen zaizkigun orain ere Janamari bezalakoak, sail guztietan euskara sustengatu behar dela uste dutenak, bakoitzak bere heinean eta lekuan eginbide horren parte bat bere gain hartuz gauzak aitzinatzen direla sinesten dutenak.